

Hasier Rekondo | BILBO

Gorbeia Parke Naturaleko artzainak, Euskal Herriko mendigoizaleak eta Enrike Ibabe ikertzailea saritu ditue gurutzearen mendeurrenaren ospakizunetan, Bilboko Carlton Hotelan, atzo banandutako Gorbeia Sarietan.

Parisko Eiffel torrearen sas-soiko estiloan eraikitako Gorbeianeko 17 metrotako gurutzeak ehun urte beteko ditu, zemendiaren 12an.

Haizeteek lurrera botatako aurrez eregitako gurutze biren oinordekoa da gaur eguneko; Leon XIII Aita Santuak kristautasuneko mendi gailurrik garaienetan gurutzeak eregiteko luzatutako gomendioaren ostean, eregi zituen aitatutako gurutzeak. Datorren astelehenean mendeurrena beteko dauen gurutzea euskaldunen eta mendigoizaleen ikur bihurtu da XX. gizaldian.

Jose Beobide 81 urteko Gopegi-Zigoitiko artzain arabarrak eta Basilio Etxebarria Altzusta auzoko 78 urteko zeanuriztarrek jaso zituen Nestor Basterretxeak eskultore bermeotarrak diseinutako eta Blanka Gomezek landutako mendeurrenaren testiguaren zaintze saria. «Gorbeia mendigunea zaintzeagaitik eta mila urtean



JOSU ETXEBARRIOSTE

SARITUAK. Jose Beobide eta Basilio Etxebarria artzainak, Jokin Uriarte mendizalea eta Enrike Ibabe, atzo.

Mendi gurutze mitikoena

GORBEIA SARIAK. Parkeko artzainak, mendigoizaleak eta Enrike Ibabe, sarituak

euskal kulturea mantentzen dauen kolektiboaren izenean», epaimahaikoaren berbetan.

Honezaz ganera, Euskal Herriko mendizaleak ohoretu zituen, sari banaketan. «Oso atsegina

da Euskal Herriko mendigoizaleen ordezkartzan, zabalkunde saria jasotea; Bizkaiko mendizaleek ikurtzat daukie gurutzea», adierazo eban, Jokin Uriarte Bizkaiko Mendi Federazinoko presidentea.

Sabin Intxaurraga Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Lurralde Antolakuntza sailburuak emon eutsan saria Uriarteri. «Euskal Herriko gailur mitiko modura, ezagutuarazoteko egin daben zabalkunde lana saritu deutsegu», esan eban Intxaurraga sailburuak.

Julio Ibarra ETBko kazetariak aurkeztutako sari banaketari amaiera emoteko, Josu Bergara Bizkaiko Ahalduen Nagusiak Enrike Ibabe ikerlariari emon eutsan Basterretxearen testigua.

Euskaldunen arbasoak

Gorbeia Parke Naturaleko balore etnologikoak zabaltzeagaitik eta, irabazi asmo barik, euskal arbasoen historiaren ganean Ibaberen ikerketak saritu zituan epaimahaikoak.

Intxaurraga sailburuak atzo aitatutakoaren arabera, «Gorbeia gurutzea herri honen askatasun gurariaren testigu izan da, azken gizaldian, behin eta barriro zapaldutako askatasun nahien testigu zuzena». Leku-kotasun horren testigu zuzenak dira, gailurrera iritsitako milaka euskal herritarrek.

EGITARAUA

ZEMENDIAK 10, ZAPATUA

12:00: Futbol partidua. Athletic Club eta Alaves taldeko lehengo jokalarien artean, Orozkoko Ibaiondo zelaian. Salva, Carlos Gebara, Sabino Alava edo Higinio izango dira, besteak beste, Alavesen aldetik. Athleticetik, Melendez, Urkiaga, Andrinua, Urtubi edo Lizarralde egongo dira, besteak beste, hasierako hamaikakoan.

ZEMENDIAK 10, ZAPATUA

20:00: Nestor Basterretxearen eskultorearen maketearen aurkezpena. Xabier Euguskitzek eta Nestor Basterretxearen eskultore bermeotarrak maketearen aurkezpena egingo dabe, Zeanuriko Udaletxean.

ZEMENDIAK 11, DOMEKEA

13:30: Mendizaleen kontzentrazioa, Gopegi-Zigoitiko Bengolarra frontoian. Eguraldi kaskarra dala eta, bertan ospatuko dabe mendi ganean egin beharreko kontzentrazioa: mezea, trikitilariak, abesbatzak, bertsolariak, dantzak...

ZEMENDIAK 12, ASTELEHENA

12:00: Gorbeia Gurutzearen mendeurrena. eguerdiko 12.00etatik aurrera mezea eta gurutzearen bedeinkapena, ostean errormeria. Beste alde batetik, egun honetako ekitaldiei jagokenean, Mendeurrenako antolatzaileek oraindino ez ditue bertan behera itxi.

ZEMENDIAREN 13, MARTITZENA

Arratsalde: Erakusketea. Arteko Manu Egileor ikasle aretoan, 'Artzainak Argentinan eta Uruguayn' erakusketea zabalduko dabe.

ENRIKE IBABE

IKERLARIA

«Aterpe larregi dagoz parke naturalean»

H.R. |

Enrike Ibabek Gorbeia Parke Naturaleko balore etnologikoak zabaltzeagaitik jaso dau Ikerkuntza Saria. *Las Culturas del Gorbeia* liburu argitaratu barri dau Ibabek, Gorbeia arbasoen kulturen ganean.

■ Ze sentimentu eragiten deutsu ikerketa arloko saria jasoteak?

Asko poztzen nau, batez be, maitatzen dodan mendi baten ganeke ikerketak saritu ditualako.

■ Ze egoeratan dago, gaur

egun, Gorbeia Parkea?

Nire ustez, konpondu eta barritu behar diran gauzak dagoz oraindino egiteko. Nire ustean, aterpe larregi dagoz Gorbeia Parkean. Inor kalteku barik, ekonomiari edo arlo ludikoari jagokonez, zezoz egin beharko litzateke.

■ Ze kalte eragiten ditue aterpeok?

Mendigunearen barruan etenbako eraikinak egiten dirala, batez be. Beste alde batetik, bertako arbola gehiago landatu beharko litzateke parkean. Pinudien inbasioa galarazo behar da.

BASILIO ETXEBARRIA

ZEANURIKO ARTZAINA

«Zeanurin, lau artzain bakarrik dagoz»

H.R. |

Basilio Etxebarria Altzusta auzoko 78 urteko zeanuriztarrek ardiak Beretxikorta baserriko kortan batu eta gero, goizean goiz eguraldi kaskarra zala eta, etorri zan sari banaketara.

■ Zenbat denpora emon dozu artzain lanetan?

64 urte emon ditut guztira. Asko gitxitu dira artzainak eta ardiak. Oraingo gazteak beste bizimodu bat gura dabe, gogorra dalako. Herriko kaleetan gauza asko dagoz ondo pasetako.

■ Zenbat artzain dagoz Gorbeian?

Lehen baino askoz be gitxiago. Sasoi baten, Zeanuriko aldean hogeita hamar bat egozan. Orain, lau bakarrik dagoz. Lehen artzain bakoitzak 120 bat ardi eukazan; orain 200etik gorako artaldeak dagoz.

■ Zure sasoiaren, denpora asko ibiltzen zinien ardiak, batetik bestera?

Uda osoa egin behar izaten genduan mendian, eta neguaren zati bat, bakar bakarrik ardiak; txaboletan lo egiten genduan.